

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3699

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 6koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

2025eko maiatzaren 7ko Ebazpenaren bidez (2025eko ekainaren 18ko EHAA), lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzen zen. Ikerketa errektoreordeak egindako txostena ikusita eta lanposturako proposatutako pertsonak 2025eko maiatzaren 7ko Ebazpeneko eranskinean eskatzen ziren betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituela ikusita, ebazpen horren laugarren oinarria betez eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen arabera (2023ko urtarrilaren 6ko BOE). Gerentzia honek, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2025eko urtarrilaren 30ean hartutako erabakia, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena (2025eko otsailaren 19ko EHAA) erabiliz, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Maria Aranzazu Muñoz Recondo Andrea izendatzea behean azaltzen den lanpostua betetzeko.

Izena: Kargudunaren idazkaria.

Erreferentzia: F 41.

Eskala: Administraria / Administrari laguntzailea.

Taldea: C/D.

Zenbatgarrena: 12.

Maila: 19.

Lanaldia: Arautua.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2014-01-31.

Langunea: Ikerketa Errektoreordetza.

Campusa: Gipuzkoa.

Bigarrena.— Izendapenak EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2025eko abuztuaren 6a.

UPV/EHUko gerentea,
JAVIER VARONA GUARÁS.